



ZUMAIA / Hiru jarduera egingo dituzte, gaur, Udal Liburutegian

Eusko Jaurlaritzaren 'Irakurri' kanpainaren baitan egingo dira jarduera horiek

A. Mutiozabal

Gaur Liburutegiaren Eguna dela eta, Zumaiako Udal Liburutegiak Eusko Jaurlaritzak antolatutako Irakurri kanpainan parte hartuko du, eta honako hiru jarduera hauek egingo dituzte liburutegian bertan: alde batetik, Liburu bat, adiskide bat; bestetik, Familiak ere kontatzen du; eta, azkenik, Liburua ageri duen erretratua.

Liburu bat, adiskide bat jardueraren barruan, lagun edota senideren bat liburutegira ekartzen duenari opari bat emango diote. Familiak ere kontatzen du jarduerarekin, 3 eta 6 urte bitarteko haurren artean irakurtzeko gogoia sustatzeko gida banatuko diete gurasoei.

Liburua ageri duen erretratua jardueraren baitan, azkenik, EAEko DBHko ikastetxeetako ikasleen artean argazki lehiaketa egingo dute, datorren azaroaren 15a bitartean. Lehiaketako oinarriak liburutegian bertan eskuratu daitezke